

BILBO METROPOLITARREKO EREMU FUNTZIONALAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN BERRIKUSPENA

Behin-behineko Onespenerako Dokumentua



E DOKUMENTUA
UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

2023KO MARTXOA

PLANAREN SUSTAPENA, EKIMENA ETA ZUZENDARITZA

Imanol Pradales. AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE GARAPENERAKO FORU DIPUTATUA
Gorka Estebez. LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARI NAGUSIA
Jose M^a Bilbao. LURRALDE KOHESIORAKO ZUZENDARIORDE NAGUSIA

Idoia Garay. Lurralde Antolamendurako Saileko Burua
Domingo Ruiz. Saileko arkitektoa
Jose Manuel Alonso. Saileko arkitektoa
Olga Aldaz. Saileko arkitektoa
Miguel Ángel Blanco. Saileko arkitektoa
Ainara Uriarte. Arquitecta de la Sección Francisco Javier Hernández. Diseinu grafikoa
Javier Mendia. Diseinu grafikoa



DOKUMENTU HAU IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOA

ZUZENDARITZA

Ane Miren Martínez, Arkitektoa
María Rodríguez, Arkitektoa
Mikel Cepeda, Arkitekto aditua klima-aldaketan eta paisaian
Luis Anduaga, Arkitektoa

TALDE TEKNIKOA

Marco Segurola, Geografoa
Itziar Larrea, Diseinu Grafikoa
Azucena Marquinez, BUPI ingeniaria

KOLABORATZAILEAK

Cristina López, Biologoa
Fulgencio C. Gutiérrez-Solana, Abokatua
Sergio Tejedor, Abokatua



KREAN Koop.

...

aurkibidea

1. SARRERA	1
2. ERAGIN OROKORRAK EREMU FUNTZIONALEKO UDALERRI GUZTIETARAKO	2
2.1. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA.....	2
2.2. KLIMA-ALDAKETA.....	4
2.3. HIRI-HABITATA.....	5
2.4. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO-AZPIEGITURAK.....	6
2.5. BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA.....	7
2.6. PAISAIA ETA KULTURA-ONDAREA.....	7
2.7. ZEHARKAKO GAIAK	7
2.8. PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEA	7
3. UDALERRI BAKOITZARENTZAKO ERAGIN BEREZIAK.....	8
3.1. ABANTO ZIERBENAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	9
3.2. ALONSOTEGIKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	13
3.3. ARRANKUDIAGAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	16
3.4. ARRIGORRIAGAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	19
3.5. BARAKALDOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	22
3.6. BARRIKAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	27
3.7. BASAURIKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	30
3.8. BERANGOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	34
3.9. BILBOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	36
3.10. DERIOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	41
3.11. ERANDIOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINERAKO ERAGINAK	44
3.12. ETXEBARRIKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	49
3.13. GALDAKAOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	52
3.14. GETXOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	56
3.15. GORLIZKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	60
3.16. LARRABETZUKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	63
3.17. LEIOAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	66
3.18. LEMOIZKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	70
3.19. LEZAMAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	73
3.20. LOIUKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	75
3.21. MUSKIZ UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	79
3.22. ORTUELLAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	83
3.23. PLENTZIAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	87
3.24. PORTUGALETEKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	90

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.25.	SANTURTZIKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	93
3.26.	SESTAOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	97
3.27.	SONDIKAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	101
3.28.	SOPELAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	105
3.29.	UGAOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	108
3.30.	URDULIZKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	111
3.31.	TRAPAGARANGO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	114
3.32.	ZAMUDIOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	118
3.33.	ZARATAMOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	121
3.34.	ZEBERIOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK	124
3.35.	ZIERBENAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK.....	126

1. SARRERA

Jarraian, Lurralde-plan Partzial honek Eremu Funtzionaleko udalerrri bakoitzean izango dituen eraginak adierazten dira.

Eskema gisa, udalerriei eragiten dieten zehaztapen nagusiak aipatzen dira; hala ere, Lurralde-plan Partzial hau osatzen duten dokumentuetara igortzen da (memoria, antolamendu-arauak eta dagozkien planoak), horietako bakoitzaren benetako irismena ezagutzeko, baita errore eta ez-egiteen kasuan ere.

Jarraian, 2. kapituluan, eremu funtzionalaren eragin orokorrak laburbiltzen dira eta 3. kapituluan, berriz, hura osatzen duten 35 udalerrietako bakoitzaren eragin bereziak aurkezten dira. Bi kapituluetan, Lurralde-plan Partzialaren arlo tematikoen araberako eraginen sailkapena egin da.

2. ERAGIN OROKORRAK EREMU FUNTZIONALEKO UDALERRI GUZTIETARAKO

2.1.INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea antolatzeko proposamena Memoriaren dokumentuan deskribatzen da eta 3. tituluaren 1etik 4ra bitarteko kapituluaren bidez arautzen da, baita Antolamendu-arauei buruzko I. eranskinean jasotako ingurune fisikoaren erabilerak arautzeko matrizearen bidez ere. Horrez gain, *Antolamendu-arauei buruzko II. Eranskinean jasotako ingurune fisikoaren matrizearen erabileren definizioaren bidez eta antolamendu-plano hauetan arautzen da:*

- 01.- Ingurune fisikoaren antolamendua. Antolamendu-kategoriak
- 02.- Ingurune fisikoaren antolamendua. Ingurumen-hobekuntza
- 03.- Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarriak. Uholde eremuak.
- 04.- Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarriak. Akuiferoen kalteberatasuna. Arrisku geologikoak. Baso-suteak.
- 05.- Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriak
 - 05.1.- Metropoliko azpiegitura berdea: nagusiki erregulaziokoak eta eustekoak diren zerbitzu ekosistemikoak dituzten elementuak
 - 05.2.- Metropoliko azpiegitura berdea: zerbitzu ekosistemiko kultural nabarmenak dituzten elementuak
 - 05.3.- Metropoliko azpiegitura berdea: korridore ekologikoak eta gatazka-eremuak; hiriko azpiegitura berdea
- 06.- Beste baldintzatzaile gainjarri batzuk. Erabilera publikoko mendiak
- 07.- Natura-ibilbideak eta paisaiaren pertzepzioa.

Eremu Funtzionalen dauden eta babeserako figura espezifikoak duten Babestutako Espazio Naturalen eremuak dagozkien Naturaren Baliabideak Antolatzeko Planen (NBAP) edo Erabilerak eta Kudeaketa Zuzentzeko Planen (EKZP) bidez arautzen dira.

Legeria sektorial propioa duten eremuen erregulazioa hari lotzen zaio.

2.1.1. Ingurune fisikoaren antolamendua

LPPK ingurune fisikoaren antolamendu-kategoria hauek ezartzen eta definitzen ditu:

- Babes berezia
- Ingurumen-hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala
 - Balio Estrategiko Handia
 - Trantsizioko landa-paisaia
- Gainazaleko uren babesa

Udal-plangintza orokorrak LPP honen kategorizazio-proposamenak errespetatuko ditu eta ingurune fisikoan garatuko du ingurune *fisikoaren antolamenduaren 1. planoan mugatutako zonifikazioa. Antolamendu-kategoriak*, nahiz eta azpikategoriak edo udal-eskalan mugaketak egokitzeko azpikategoriak defini daitezkeen. Behar bezala justifikatu behar dira ekintza horiek guztiak.

Lurralde-plan partzial honetako zehaztapenak eta arauak zuzenean aplikatu arren, Ingurune Fisikoaren Antolamendu-matrizearen I. eranskinean jasotako antolamendu-matrizean adierazitako erabilerak zehaztuko dituen xehetasun-baldintzen antolamendua plangintza orokorretan ezarriko da.

LPP honetan jasotako esku hartzeko araubidea udal-plangintzek nahitaez bete beharko dute eta, gainera, zehatzago garatu ahal izango dute.

Ingurumen-hobekuntzako eremuei eta bertan garatzen den erabilera- eta jarduera-araubideari dagokienez, irizpide orokor gisa, udal-plangintzak Antolamendu-arauei buruzko I. Eranskinean agertzen den erabileren matrizearen ondoriozkoa jasoko du. Hirigintza-plangintza orokorrak ingurumena hobetzeko jarduketetan sartutako eremuen antolamendua jorratuko du, bertan baimendutako erabilerak koordinatuz, proposatutako lehengoratzeko-helburua lortzeko.

Era berean, udal hirigintza-plangintzak jarduerarik gabeko harrobien kudeaketari helduko dio eta proposatutako lehengoratzeko-helburua lortzeko baimendutako erabilerak koordinatuko ditu, Erauzketa-jarduerak eragindako espazio naturala leheneratzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan ezarritako irizpideei jarraituz. Zabortegiek bete egin behar dituzte eska daitekeen legeriaren xedapenak: Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua (1994ko abenduaren 19ko EHAA) eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren 1995eko otsailaren 15eko Agindua (1995eko martxoaren 20ko EHAA).

2.1.2. Azpiegitura berdea

Egikaritutako metropoli-parkeen eta ibai-parkeen aldaketak eta LPPn jaso eta oraindik garatu ez direnen garapena udal-plangintzaren eta udalaz gaindiko plangintzaren bidez egingo dira. Plangintza horrek, LPP honetan zehaztutako mugaketari jarraituz, eremuen muga zehatzak ezarriko ditu, metropoli-parkeak zein ibai-parkeak garatzeko. Horiek dagozkien plan berezien bidez garatuko dira, erabileren arauketa zehatza jasoko dutenak. Metropoli-parkeen eta ibai-parkeen antolamendua eta esku-hartze araubidea udal-eremuko edo udalaz gaindiko plangintza bereziko tresnek ezarritakoak izango dira. Metropoli-parkea mugatzeak udalerrri bati baino gehiagori eragiten badie, udalaz gaindiko plangintza bereziko tresna bakar baten bidez antolatuko da eta eraginpeko udalerriek batera izapidetu beharko dute, aplikatzekoa den hirigintza-legeriak legez ezarritako prozeduraren arabera. Nolanahi ere, plan berezi horiek izapidetzeko prozedura arlo horretan eskumena duen administrazio publikoak sustatu eta, hala badagokio, bultzatu ahal izango du, aplikatzekoa den hirigintza-legerian ezarritakoaren arabera.

Aisialdi-eremuei dagokienez, aisialdiko eremuen ezarpena, deuseztapena, mugaketa, antolamendua eta esku-hartze araubidea dagozkien udal plangintza-tresnek bere eskumen-eremuan ezarritakoak izango dira izango dira.

2.1.3. Baldintzatzaile gainjarriak

Era berean, Lurralde-Plan Partzial honek antolamendu-arauei dagokien kapituluan ezartzen eta definitzen dituen azpiegitura berdearen baldintza gainjarriak eta gainjarritako baldintzatzaileen elkarrekintza- eta integrazio-eremuak kontuan hartuko dira, honako zerrenda honen arabera:

- a) Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarriak
 - o Uholde-arriskua duten guneak
 - o Akuiferoen kalteberatasuna
 - o Arrisku geologikoak

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- Baso-suteak
- Bero-uhartearen efektua
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan eragina duen lehorte

b) Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriak

b.1) Metropoliko azpiegitura berdea

- Gehienbat erregulazio- eta euste-zerbitzu ekosistemikoak dituzten elementuak:
 - Natura-gune interesgarriak
 - Batasunaren intereseko beste habitat batzuk
 - Lurzoruaren kategorizazioan sartutako eta bere atalean definitutako beste elementu batzuk:
 - Natur intereseko eremuetako ertzak
 - Ondo kontserbatutako landaredia duten ertzak
 - Babes Berezia sartutako elementu naturalak: II.taldeko eta III.taldeko hezeguneak.
 - Zerbitzu ekosistemiko kultural garrantzitsuak dituzten elementuak:
 - Metropol-parkeak eta ibai-parkeak
 - Aisialdirako guneak
 - Hiriko hondartzak
 - Korridore ekologikoak
- a.2) Hiri-azpiegitura berdea
- Berdeguneetako eta espazio libreetako sistema orokorrak eta tokiko sistemak
 - Udalaz gaindiko hiri-korridorea

Korridore ekologikoak udal-plangintzan sartuko dira, baso autoktonoak lehengoratzeko sustatzeko jarduketa-proposamen batekin, korridore urdinetan eta hezeguneetan sartutako ibaiertzeko basoak barne, eremu funtzionalean azpiegitura berdearen lehentasunezko elementuen konektibitate ekologikoari eusteko.

2.2. KLIMA-ALDAKETA

Klima-aldaketarekin lotutako antolamendu-proposamenak Memoriaren dokumentuan deskribatzen dira eta antolamendu-arauen 10. tituluko 1. kapituluaren bidez arautzen da.

Bilbo Metropolitarrako Lurralde-plan Partzialak klima-aldaketaren kausak eta ondorioak jasotzen ditu, proposamenen bidez berotegi-efektuko gasen isurketen balantze garbia murrizten eta erresilientzia hobetzen laguntzeko.

Eremu Funtzionaleko udalerriek klima-aldaketarekiko duten kalteberatasuna EAEn lehentasunezko zat jotzen diren inpaktuen arabera planteatzen da:

- Giza osasunerako bero-boladak
- Hiri-ingurunearen gaineko uholdeak
- Itsas-mailaren igoera hiri-ingurunearen gainean

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

– Jarduera ekonomikoen gaineko lehortea

Lurralde-plan Partzialaren Antolamendu-arauek barne hartzen dituzte aztertutako lehentasunezko inpaktuen aurrean arrisku handiena duten eta klima-aldaketaren ondorioen azterketan sakontzera bideratuta dauden udalerrientzat eta udalaz gaindiko lurralde-eremuentzat ezarritako gomendioak eta nahitaez bete beharreko zehaztapenak.

Eremu funtzionaleko udalerrri guztien hirigintza-plangintzak klima-aldaketaren eraginen eta kalteberatasunaren kartografia tematiko bat izan beharko du.

Lehentasunezkoztzat jotzen diren lau inpaktuetakoren batean arrisku handiagoa duten udalerriek, Antolamendu-arauen 110. artikuluan definitzen denaren arabera, klima-aldaketaren ondorioetan sakondu beharko dute, mehatxuei eta inpaktuei buruzko azterlan espezifikoaren bidez. Horretarako, lehentasunezkoztzat jotzen diren lau inpaktuetako bakoitzean arrisku handiena duten udalerrietako hirigintza-plangintzak berariaz jaso beharko du kartografia tematiko bat, inpaktuak eta arriskurik handiena duen inpaktuaren edo inpaktuen kalteberatasuna jasotzen dituen.

Bilboko itsasadarraren udalaz gaindiko eremu estrategikoan itsas mailaren igoerak hiri-ingurunean eta itsasertzean izango duen eraginari dagokionez, EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde-plan Sektorialaren Berrikuspenak eta Egokitzapenak klima-aldaketaren erronkari aurre egiteko agintzen dutena beteko da. Izan ere, gaur egun, plana aurretiazko azterlanen eta diagnostikoaren fasean dago.

Uribe Kostako itsasertzeko metropoli-parkearen eremuan, itsas mailaren igoerak hiri-ingurunean eta itsasertzean izango duen eraginari dagokionez, metropoli-parkearen garapen-tresnak, antolamendu-arauek hauen 27. artikuluan zehaztutakoaren arabera, azken batean, eremuan jasotako udalerrientzako zehaztutako azterlanak koordinatu eta osatu ahalko ditu, hain zuzen ere, antolamendu-arauen 110. artikuluan zehaztutako zerrendari jarraiki.

Lehentasunezkoztzat jotako lau inpaktuetako bakoitzean arriskurik handiena dutela identifikatutako udalerriek, antolamendu-arauen 110. artikuluan zehaztutako zerrendaren arabera, klima-aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak planifikatzearen egokitasuna ebaluatu beharko dute. Proposatu beharreko neurrien helburua lehentasunezkoztzat jotako inpaktuetatik eratorritako arriskuak arintzea izango da, udalerrri bakoitzak arrisku nabarmena baitu horietarako. Neurri horiek planifikatu ahalko dira udal hirigintza-plangintzaren berrikuspenean, bestelako hirigintza-tresna, plan edo programen bitartez.

LPP hau idazteko unean, EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana Klima Aldaketaren erronkara berrikusteko eta egokitzeko prozesua garatzen ari da. Dokumentua Aurrerapen-fasean dago, eta haren zehaztapenak hartu beharko dira hiri-ingurunean eta itsasertzean itsas maila igotzeko arriskua prebenitzeko eta klima-aldaketak eragindako inpaktuetara egokitzen laguntzeko.

2.3. HIRI-HABITATA

Bizitegi-kokalekuekarako eta jarduera ekonomikoetarako LPPren eredia Memoriaren dokumentuan deskribatzen da (6.kapitulua) eta dagozkion antolamendu-arauen eta eranskinen 5. tituluaren arautzen da, baitahiri-hazkundeko perimetroaren 9. planoan eta hiri-habitataren antolamendu orokorraren 10. planoan ere.

Titulu honetan ezarritako zehaztapenak lotesleak dira udal-plangintzak idazteko eta, egokitu egin daitezke, bai esku-hartzeen hedapenari dagokionez, bai haien intentsitateari dagokionez, LPP honetan udal-plangintza horien garapenean ezarritako marjinen barruan.

2.3.1. Bizitegi-kuantifikazioa

Udal-plangintzak ezarriko du etxebizitza-eskaintzaren kuantifikazioa, antolamendu-arauen 66-68 artikuluetan eta III. eranskinean adierazitakoaren arabera, ezarritako gehieneko bizitegi-ahalmenaren muga betez. Metodo osoa Memoriaren 6.4.2 atalean deskribatzen da, LAGen aplikazio-arauen 13. artikuluan eta IV. eranskinean xedatutakoaren arabera.

2.3.2. Jarduera ekonomikoen kuantifikazioa

Lurralde-plan Partzialaren Memoriaren 6.5.1.2 atalean, Bilbo Metropolitarrako udalerrri eta azpierrez bakoitzean planifikatutako, okupatutako eta libre dagoen lurzuaren egungo egoera islatzen duten informazio-taulak daude. Gainera, 6.5.1.4 atalean, jarduera ekonomikoetarako lurzuaren kuantifikazio globala garatzen da, Jarduera Ekonomikoetarako eta Ekipamendu Komertzialetarako Lurzorua Publikoki Sortzeko Lurralde-planaren 9. artikuluan ezarritako gidalerro loteslea betetzen dela egiaztatzen duena. Irizpide horiek antolamendu-arauen 72. artikuluan jasotzen dira.

LPPren arabera, Eredu Funtzional osoa lehentasunezko intereseko konurbazio bakarra da eta jarduera ekonomikoak ezartzeko aukerak dagoeneko kalifikatutako lurzuera mugatzen dira, honako salbuespen hauekin: 14 hektareako proposamen bat Ibarbengoan (Getxo); Montealegreko (Alonsotegi) 20 hektareako lurzoru publikoaren aurreikuspena; 53 ha Agarren (Zamudio) eta 50 ha gehiago Ortuellan. Erronka kalifikatutako lurzoru garatzea da, baldintzatzaile sektorial desberdinek arazoak ebatziz. Lehentasunezkoa da lurzoru horiek balioan jartzea.

2.3.3. Esku hartzeko moduak

Lurralde-plan Partzialak bizitegitarako eta jarduera ekonomikorako lurzuertarako proposatutako esku-hartze moduak Memoriaren 6.3.3 kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluko 2. kapituluaren ezarritakoak dira. Dokumentu honen 3. kapituluaren jaso dira udal-mugarte bakoitzean dituen ondorioak.

2.4. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO-AZPIEGITURAK

Mugikortasun eta garraio-azpiegituren eredu Memoriaren dokumentuan deskribatzen da eta Antolamendu-arauen 7. tituluko bidez arautzen da, baita honako plano hauetan ere: *Motorrik gabeko* mugikortasunaren 12. plano; *Trenbide-garraioaren* azpiegituren 13. plano; *Bide-azpiegituren* 14. plano eta *Azpiegitura intermodal eta garraio publikorako irisgarritasunaren* 15. plano.

Dokumentu honen 3. kapituluaren adierazten dira ondorio bereziak, udal-mugarte bakoitzerako dokumentu horiek jasotzen dituzten ekintza zehaztutara itzulita. Halaber, dokumentu horren lotura zehatza adierazten da, Antolamendu-arauen 7. tituluaren eta XII. eranskinean kasu bakoitzerako ezarritako loturen arabera finkatuta.

Horrez gain, eta 7. tituluaren adierazitako gidalerroak eta jarduera-ildoak alde batera utzita, oro har lurralde osoari eragiten diotenak, honako hauek dira udalerrri guztiei oro har eragiten dieten ekintzak:

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:
 - Garraio kolektiboa ezartzeko azterlanak, lehendik dauden eta etorkizunean izango diren jardura-zentro handiei dagokienez.
 - Aurreikusi gabeko behar logistiko berrietarako alternatibak aztertzea, gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren bideragarritasuna kontuan hartuta eta LPPk proposatutako lurralde-ereduarekiko egokitzapena justifikatuta.

- Lurzoruaren erabilera berriak sortzea edo daudenak aldatzea ahalbidetzen duten garapenerako hirigintza-plangintzei dagokienez, horien idazketak honako azterlan hauek jaso beharko ditu:
 - ✓ Garraio jasangarrian iristeko azterlana mugikortasun-sortzaile berriei.
 - ✓ Inguruko errepideen egoera ebaluatuko duen trafiko-azterlana, eragindako udal-sarera hedatuko dena; halaber, jardueraren eragin potentziala ebaluatuko da.
- Lurralde-ereduaren iradokizun gisa:
 - Garraio kolektiborako errei eskusiboa sartzeari honako kasu hauetan:
 - ✓ Itsasadarra zeharkatzea ahalbidetzen duen edozein bide-azpiegitura berri.
 - ✓ Ordezko ibilbideak abian jartzeagatik eraginkortasuna galtzen duten errepide-zatiak eraldatzea.
 - ✓ Tren-geltokien ondoko bide-zatietan, truke modalak inplementatzeko.

2.5. BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA

Baliabideen kudeaketa iraunkorraren eredia Memoriaren dokumentuan deskribatzen da etadagozkion Antolamendu-arauen 8. tituluaren eta eranskinen bidez arautzen da, baita *plano hauetan ere: 15. Uraren zikloa. Hornikuntza-sarea, 16. Uraren zikloa. Saneamendu-sarea eta 17. Energia eta hondakinen eta lurzoruaren kudeaketa.*

Dokumentu honen 3. kapituluari jaso dira udal-mugarte bakoitzean dituen ondorioak. Oro har, udalerrri guztiek bete beharko dute Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak "Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren proiektuen eta instalazioen trazadurek hirigintza-plangintzan – Hirigintza-araubide berriak eraginari buruzko testua" dokumentuan zehaztutakoa, hornidura- eta saneamendu-sistema orokorraren trazaduraren eraginei, plangintzaren antolamendu-araubideak, hirigintza-araudiari eta saneamendu- eta hornidura-sistema orokorraren garapenera dagokienez.

2.6. PAISAIA ETA KULTURA-ONDAREA

Paisaiaren eta Kultura-ondarearen eredia Memoriaren dokumentuan deskribatzen da eta Antolamendu-arauen 5. artikuluan zehaztutako lotura-mailarekin eta dagozkion antolamendu-arauen 9. tituluaren eta eranskinen bidez arautzen da, baita *lurralde-eskalako kultura-ondarearen 18. planoan eta 26.etik 30.era bitarteko planoen bilduman ere.*

2.7. ZEHARKAKO GAIK

Lurralde-plan Partzial honek planteatzen duen lurralde-ereduarekiko zeharkako gaiak Memoriaren dokumentuaren 12. kapituluari deskribatzen dira. Horrez gain, Antolamendu-arauen 5. artikuluan zehaztutako lotura-mailarekin arautzen da, baita dagozkien antolamendu-arauen 10. tituluaren eta eranskinen bidez ere.

2.8. PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEA

Plangintzen bateragarritasuna memoriaren dokumentuan deskribatzen da eta antolamendu-arauen 20. tituluari eta VIII. eranskinean kasu bakoitzean adierazitako lotura-mailarekin arautzen da, baita plangintzak *bateragarri egiteko* 20. planoan ere. Dokumentu honen 3. kapituluari jaso dira udal-mugarte bakoitzeko eraginak.

3. UDALERRI BAKOITZARENTZAKO ERAGIN BEREZIAK

Udal-plangintzaren gaineko eraginak Bilbo Metropolitarrako Lurralde-plan Partzialaren eremua osatzen duten udalerrri bakoitzerako garatzen dira, honela egituratuta:

- Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea
- Landa-habitata
- Hiri-habitata
- Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak
- Baliabideen kudeaketa iraunkorra
- Udalaz gaindiko eremu estrategikoak
- Klima-aldaketa
- Osasuna
- Plangintzak bateragarri egitea

Lurralde-plan Partzialak udalerrri horri buruzko proposamen zehatzak egiten dituen alderdiak baino ez dira garatzen.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.1.ABANTO ZIERBENAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.1.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategorien ondoriozko eraginak

- Ingurumen-hobekuntza:

Udalerrian ingurumena hobetzeko eremuak daude, ekosistemak hobetzearekin eta eremu degradatuak (harrobiak) leheneratzearekin zerikusia dutenak.

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten gunek
- Akuiferoen kalteberatasuna
- Arrisku geologikoak
- Baso-suteak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak

Meaztegiko metropoli-parkea. Eremuak 2000ko maiatzaren 10eko BAO on argitaratutako Ingurumena Babesteko eta Leheneratzeko Plan Berezi bat du, Meatzaldea, Abanto-Zierbena, Ortuella eta Trapagarani dagokiena. Eremuaren muga handitu egin da, Las Calizas eremua barne hartuz, BFAko Ingurumen Sailak proposatu duen bezala.

- Aisialdirako gunek

El Cerrillo

Siete Robles

Abanto-Zierbenako bidegorria

- Korridore ekologikoak eta lotura-korridoreak

C.E.06 Ganekogorta – Meaztegi – Barbadun. C.E.05 Ganekogorta – Gorbeia – Aiara korridore ekologikoa Las Tobas-Akirtza ibai nagusiaren interes naturaleko eremuaren ingurunearekin lotzen du, baita Meatzaldeko Biotopoa Armañongo Parke Naturalarekin konektatzen duen korridorearekin ere.

C.E.E.07.02 Serantesko metropoli-parkea Barbadungo itsasadarrarekin lotzea. Petronorrek Abanto-Zierbenan eta Muzkizen duen instalazioaren hegoaldeko eta mendebaldeko muga dago. Proposatutako helburua da Serantes mendiko – Arena hondartzako metropoli-parkearen eta Barbadungo korridore ekologikoaren (C.E.07) eta Ganekogorta-Meaztegi-Barbadun korridore ekologikoaren (C.E.06) arteko konektibitate ekologikoa bermatzea Barbadungo hezegunearen bidez.

Azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisaren baldintzatzaile gainjarrien interakzioaren ondoriozko eraginak

- Gatazka-arloak

A.C.18 Kantabriarekiko trenbide-lotura.

A.C.19 Las Carreras

A.C.21 Montaña

3.1.2. Landa-habitata

Abanto eta Murrieta kokaguneak landa-gunetzat hartzen dira.

3.1.3. Hiri-habitat

Gehieneko bizitegi-educiera.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko eta Aplikazio Arauen IV. eranskinen bizitegi-kuantifikazioko irizpideekin bat etorriz, Memoriaren 6.4.2 apartatuan LPPak eremu funtzionaleko udalerrien bizitegi-kuantifikazioa garatzen du 8 urtera, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean islatzen du. Kasu honetan, LPPk LEZ = 0 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza lortzen du (BH max. = 1.062 etxebizitza).

Memoriaren 6. kapituluaren eta Antolamendu-arauei 5. tituluan, honakoak garatzen dira: kokalekuen ereduaren irizpideak; udalerrien gehieneko bizitegi-educieraren kalkulua eta jarduera ekonomikoen kuantifikazio globaleko gidalerroa betetzen denaren egiaztapena.

Udal hirigintza-plangintzak babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatutako lursailen erreserba zehaztuko du. Erreserba horrek, gutxienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. eta 82. artikuluetan deskribatutako estandarrak eta zenbatekoak hartuko ditu kontuan.

LPPren arabera, Santa Juliana auzoa lehentasunezko eremua da birgaitzeko, birgaitze-premia oso handia duen auzo gisa diagnostikatuta dagoelako.

Saltoki handien lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Abanto Zierbena C kategoriaren barruan dago.

Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza-ekipamenduetarako Lurzorua Publikoki Sortzeko Lurralde-plan Sektorialaren 19. artikulua arabera, Abanto-Zierbena lehentasunezko kokapenerako lehentasunezko interesa duten udalerrietako bat da. Era berean, ezkerrean industria-birmoldaketako guneen susperraldi ekonomikoa eta hirigintza-berronartzea sustatzeko eremua da.

LPPk udalerririk honetan lurralde-eredua garatzeko bi espazio nabarmen identifikatzen ditu, zehazki, hiri-habitataren antolamendu orokorraren 10. planoan eta Meatzaldeko gune estrategikoaren 23. planoan. Horietan, honela agertzen dira: E.R-10 Abra sektore industrialeko berronartze-gunea eta E.R-13 Ezkerrean/Meatzaldeko Teknologia Parkea. Espazio nabarmen horien definizioa, helburuak, irizpideak eta antolamendurako zehaztapenak Antolamendu-arauei V. Eranskinean garatzen dira.

3.1.4. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

Bidaiarien mugikortasunarekin lotutako ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Garraio kolektiboaren bidezko mugikortasun-azterlanak Ezkerrean/Meatzaldeko Teknologia Parke berriaren eremuan, Gallartako geltokitik.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako metropoli-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Meaztegi Metropoli-parkearekiko konexioa sare nagusitik.
- Konexioa Orconerako (Ortuella) Meaztegi Metropoli-parketik Kotorrio herrigunearekin (Abanto-Zierbena).
- Galindo (Barakaldo) eta Muskiz lotzen dituen N-634 errepide zaharrean hiri-ibilbide estrategikoak ezartzea.

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Meatzaldeko ardatza. N-634 errepide zaharrekin, Trapagaran, Ortuella, Abanto-Zierbena eta San Juan (Muskiz) hirietako ibilbide estrategikoen eta horiek lotzen dituzten hiriarteko zatien arteko lotura.

Trenbide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Bilboko hegoaldeko saihezbidea (lehen fasea), Serantes mendiko tuneletik Olabeagara

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Eremu funtzionalaren Santanderrekiko kanpo-konektibitatearen ezarpena abiadura handiko trenbide-sarearen bitartez.
- Bilbo-Muskiz arteko Renferen C-2 linearen aldiriko zerbitzuen maiztasuna areagotzera bideratutako azpiegituretan jarduketak gauzatzea.
- Bilbo-Muskiz ibilbidean dauden zabalera konbentzionaleko trazadurak EAERI transferitzekotan, garraibide publikoaren erabilera aukera mantentzea, tranbia bihurtzeko aukera aztertuz.

Bide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Edukiera handiko sarearen (A-8) edukiera handitzea eta botila-lepoak kentzea: Gallarta-El Haya hirugarren erreia
- BI-734 Las Carreras sahesbidea:

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- BI-634 errepide zaharraren tartea tokiko bide bihurtzea, trafikorik izango ez duelako Las Carreras sahesbidea egikaritu ondoren.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.1.5. Baliabideen kudeaketa

Lurralde-plan Partzialak jarduketa hauek aurreikusten ditu:

- Ballonti-Las Carreras bikoizketa: 800 mm-ko diametroa duen eroanbide berri bat da, Ballonti eta Las Carrerako La Floridako gordailuen artean, azken horretatik aurrera izango diren kontsumo-igoerak asetuz eta hornidura-bermea handituz Zadorratik hornidura-sisteman gerta daitezkeen larrialdien edo eragiketen aurrean.
- Meatze-kolektorea berritzea. I., II. eta III. faseak: Epigrafe honen barruan sartzen dira San Martin eta Putxeta artean dagoen meatze-kolektorearen zatia berritzeko beharrezko jarduerak. Gaur egungo kolektorea mantentzeko eta kontserbatzeko gaitasuna mugatzen duen kokaleku batean dago, eta, beraz, egoera prekarioan dago.
- Trianoko HUAren egokitzapena: Jarduketa honen helburua da dagoen HUAren beharrezko egokitzapenak egitea, isurketa-parametroak modu bermatzailean bete ahal izateko. Halaber, ibilgura isurtzeko kolektorea hobetu ahal izango da.
- Trianoko HUA Sistema Orokorreara konektatzea (Muskizko HUAra edo Zugaztietako HUAra): Trianoko HUAk jasotzen dituen emariak BBUPko Sistemaren Sareko beste sistema batera lekualdatzea da kontua, Muskiz edo Zugaztieta izan daiteke, biak tamaina askoz handiagokoak dira eta Trianoko emariak tratatzeko gaitasuna dute. Konexio horren bideragarritasuna aztertu beharko da.

3.1.6. Udalaz gaindiko eremu estrategikoak

Udalerrria "Meatzaldea" udalaz gaindiko gune estrategikoaren barruan dago, Barakaldo, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Trapagaran udalerriekin batera.

Antolamendu-arauetan eremu horretarako definitutako espazio-, azpiegitura- eta hirigintza-antolamendurako jarraibide eta irizpide orokorrak hartuko dira kontuan, baita IX. eranskinean jasotako ekintza espezifikoak ere.

3.1.7. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Renfe (zabalera konbentzionala)
- BIDEAK: A8, N-634, N-639, BI-3740, BI-2757, BI-628

- "Trenbidearen eragin-eremuaren" barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3.1.8. Plangintzak bateragarri egitea

- Ortuella eta Trapagaranekin bateragarri egitea Meaztegi metropoli-parkean.

3.2.ALONSOTEGIKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.2.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak

Pagasarriko metropoli-parkea, izen bereko mendiaren inguruan. Ganekogortako natura-intereseko eremua hartzen du. Bilboko udalerrriaren barruan dagoen eremuak 2008ko ekainaren 18an behin betiko onartutako plan berezia du.

Kadaguako ibai-parkea, izen bereko ibaiaren ibilguaren inguruan, eremu funtzionalaren hegoaldearen eta Irauregiko hirigunearen artean.

- Korridore ekologikoak

C.E.06 Ganekogorta – Meaztegi – Barbadun. Ganekogorta – Gorbeia – Aiara (C.E.05) korridore ekologikoa Las Tobas-Akirtza ibai nagusiaren interes naturaleko eremuaren ingurunearekin lotzen du, baita Meatzaldeko Biotopoa Armañongo Parke Naturalarekin konektatzen duen korridorearekin ere.

Azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisaren baldintzatzaile gainjarrien interakzioaren ondoriozko eraginak

- Gatazka-arloak

A.C.17 Alonsotegi

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten gunek
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak
- Baso-suteak

3.2.2. Landa-habitata

Azordoyagako kokalekua landa-gunetzat hartzen da.

3.2.3. Hiri-habitata

Gehieneko bizitegi-eremua. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorriz, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = 0 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza lortzen du (BH gehienez = 169 etxebizitza).

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

Memoriaren 6. kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluaren, honako irizpideak garatzen dira: kokaguneen erredua; udalerrien gehieneko bizitegi-erakundearen kalkulua eta jardura ekonomikoaren kuantifikazio globalaren gidalerroa betetzen denaren egiaztatpena.

Udal hirigintza-plangintzak babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatutako lursailen erreserba zehaztuko du. Erreserba horrek, gutxienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. eta 82. artikuluetan deskribatutako estandarrak eta zenbatekoak hartuko ditu kontuan.

Saltoki handien Lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Alonsotegi C kategoriaren barruan dago.

Jardura Ekonomikoetarako eta Merkataritza-ekipamenduetarako Lurzorua Publikoki Sortzeko Lurralde-plan Sektorialaren 19. artikulua arabera, Alonsotegi lehentasunezko kokapenerako lehentasunezko interesa duten udalerrietako bat da eta, ezkerreko gainerako udalerriekin batera, industria-birmoldaketako eremuen susperraldi ekonomikorako eta hirigintza-berroneratzerako sustapen-eremu bat osatzen dute.

Montealegren sustapen publikoko jardura ekonomikoetarako 20 hektareako lurzoru urbanizagarria sailkatzea proposatzen da.

3.2.4. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

Bidaiarien mugikortasunaren arloko ekintzek eragindako eraginak

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Zorrotza, Santa Ageda eta Kastrexanako geltokietan intermodalitatea hobetzea, ETSren L4 lineako geralekuak aldiriko tren-zerbitzuan (Renferen C4f) sartuz.

Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako metropoli-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Zorrotzatik (Bilbo) sare nagusiaren (lehen eta bigarren mailakoa) garatzeke dauden zatien egikaritzapena, Kadaguaren haranetik Arbuiraino (Alonsotegi).

Trenbide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Metroaren L4 linea berria, Abando Rekalde Iralarekin konektatuz, lurpean dauden azpiegiturak baliatuz eta Zorrotza eta Irauregiruntz luzapena (horren trazadura aztertzen ari da)

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

Metroaren L4 linea Zorrotzatik Irauregiraino luzatzea, lehendik dauden Adifeko trazaduren gainean.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.2.5. Baliabideen kudeaketa

Lurralde-plan Partzialak jarduketa hau aurreikusten du:

- Ordunte sistema berritzea Ordunte - Epigrafe honetan sartzen dira etorkizunean Ordunteko kanalean egingo diren hobekuntza-jarduerak. Kanal hori Ordunteko presa Burgosko probintziarekin lotzen du Bilbok. Zenbait sifoi birmoldatzea eta Sollanoko EUTEn etorkizuneko jarduketak egitea aurreikusten da.

3.2.6. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Renfe (zabalera metrikoa)
- BIDEAK: BI-636, BI-3651

- „Trenbidearen eragin-eremuaren” barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3.2.7. Plangintzak bateragarri egitea

- Pagasarriko metropoli-parkean, Bilbo, Arrankudiaga-Zollo, Ugao-Miraballes eta Arrigorriagarekin bateragarri egitea.

3.3.ARRANKUDIAGAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.3.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategorien ondoriozko eraginak

- Ingurumen-hobekuntza

Udalerrian, ibaiertzak hobetzearekin zerikusia duten ingurumen-hobekuntzako eremuak daude.

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten guneak
- Eremu higagarriak edo higitzeko arriskua dutenak
- Baso-suteak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak

Pagasarriko metropoli-parkea, izen bereko mendiaren inguruan. Ganekogortako natura-intereseko eremua hartzen du. Bilboko udalerrriaren barruan dagoen eremuak 2008ko ekainaren 18an behin betiko onartutako plan berezia du.

Nerbioi Behereko ibai-parkea, izen bereko ibaiaren ibilguaren inguruan, Eremu Funtzionalaren hegoaldearen eta Basauriko hirigunearen artean.

- Korridore ekologikoak

C.E.03 Urdaibai – Ganekogorta. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen proposamena. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek proposatutako korridore ekologikoa lotzen du Urdaibairen (Busturialdea – Artibai Eremu Funtzionala) eta Aiarako Eremu Funtzionalaren artean, Pagasarriko Metropoli-parkearen eremuarekin eta Ganekogortako intereseko natura-gunearekin.

C.E.05 Ganekogorta – Gorbeia – Aiara. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen proposamena. Gorbeiako Parke Naturalaren eremua (Arratia, Aiara eta Araba Erdialdeko Eremu Funtzionalak) Urdaibai – Ganekogorta korridore ekologikoarekin (C.E.03) lotzen du.

C.E.06 Ganekogorta – Meatzegi – Barbadun. C.E.05 Ganekogorta – Gorbeia – Aiara korridore ekologikoa Las Tobas-Akirtza ibai nagusiaren interes naturaleko eremuarekin eta Meatzaldeko Biotopoa eta Armañongo Parke Naturala lotzen dituen korridorearekin lotzen du.

Azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisaren baldintzatzaile gainjarrien interakzioaren ondoriozko eraginak

- Gatazka-arloak

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

A.C.011.- AP-68ko hiriburuen nukleo anitzeko euskal sistemaren eta RENFEren trenbide-azpiegituraren bide-konexioa.

A.C.22.- Arrankudiaga-Zolloko hirigunea.

3.3.2. Landa-habitata

Aspiunzako kokalekua landa-gunetzat hartzen da.

3.3.3. Hiri-habitata

Gehieneko bizitegi-educiera. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorritik, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = 0 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza lortzen du (BH gehienez = 231 etxebizitza).

Memoriaren 6. kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluan, honako irizpideak garatzen dira: kokaguneen eredua; udalerrien gehieneko bizitegi-educieraren kalkulua eta jarduera ekonomikoen kuantifikazio globalaren gidaleroa betetzen denaren egiaztapena.

Arrankudiaga-Zollaren kasuan, ez dago behartuta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak babestutako etxebizitzarako lurzorua erreserbatzera 81. eta 82. artikulua).

Saltoki Handien Lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Arrankudiaga-Zollo C kategoriaren barruan dago.

Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza-ekipamenduetarako Lurzorua Publikoki Sortzeko LPSren 19. artikulua arabera, lehentasunezko kokapenerako lehentasunezko interesa duten udalerrien artean dago Arrankudiaga-Zollo.

3.3.4. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako metropoli-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Urbiko eremutik (Basauri), sare nagusiaren garatzeke dauden zatien egikaritzapena Arrankudiaga-Zolloraino eta Laudioko AFRekin konektatzea.

Bide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- BI-625. Bentakoerreka (Arrigorriaga) -Bakiola (Arrankudiaga-Zollo) biztanle-saihesbidea.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.3.5. Klima-aldaketa

Udalerrria kaltebera da jarduera ekonomikoen gaineko (nekazaritza eta abeltzaintzako sektorea) lehentasunezko zat jotako lehorte-eraginarekiko.

3.3.6. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Renfe (zabalera konbentzionala)
- BIDEAK: AP-68, BI-625, BI-4521

- „Trenbidearen eragin-eremuaren“ barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3.3.7. Plangintzak bateragarri egitea

- Ugao-Miraballes, Arrigorriaga, Zaratamo eta Basaurirekin bateragarri egitea Nerbioi Behereko ibai-parkean.
- Pagasarriko metropoli-parkean Bilbo, Alonsotegi, Arrigorriaga eta Ugao-Miraballesekin bateragarri egitea.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.4.ARRIGORRIAGAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.4.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategorien ondoriozko eraginak

- Ingurumen-hobekuntza

Udalerrian badira ekosistemak hobetzearekin, ibaiertzak lehenetzearekin eta eremu degradatuak (harrobia) berreskuratzearekin lotutako ingurumen-hobekuntzako eremuak.

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten guneak
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak

Montefuerteko metropoli-parkea, Malmasin inguruan.

Pagasarriko metropoli-parkea, izen bereko mendiaren inguruan. Ganekogortako natura-intereseko eremua hartzen du. Bilboko udalerrriaren barruan dagoen eremuak 2008ko ekainaren 18an behin betiko onartutako plan berezia du.

Nerbioi Behereko ibai-parkea, izen bereko ibaiaren ibilguaren inguruan, Eremu Funtzionalaren hegoaldearen eta Basauriko hirigunearen artean.

- Aisialdirako guneak

Ollargan – Montefuerte

- Korridore ekologikoak

C.E.03 Urdaibai – Ganekogorta. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen proposamena. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek proposatutako korridore ekologikoa lotzen du, Busturialdea – Artibai Eremu Funtzionalako Urdaibairen eta Aiarako Eremu Funtzionalaren artean, Pagasarriko Metropoli-parkearen eremuarekin eta Ganekogortako natura-gune interesgarriarekin.

- Gatazka-arloak

A.C.20 Ollargan - Zubialdea.

A.C.23 Buia.

3.4.2. Landa-habitata

Brisketako kokalekua landa-gunetzat hartzen da.

3.4.3. Bizitegi-kokalekuen eta jarduera ekonomikoen eredia

Gehieneko bizitegi-dukiera. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorriz, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = -287 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza BH = 727 etxebizitza da.

Memoriaren 6. kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluan, honako irizpideak garatzen dira: kokaguneen eredia; udalerrien gehieneko bizitegi-dukieraren kalkulua eta jarduera ekonomikoen kuantifikazio globalaren gidalerroa betetzen denaren egiaztatzea.

Udal hirigintza-plangintzak babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatutako lursailen erreserba zehaztuko du. Erreserba horrek, gutxienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. eta 82. artikuluetan deskribatutako estandarrak eta zenbatekoak hartuko ditu kontuan.

Lurralde Plan Partzialaren arabera, birgaitzeko lehentasunezko eremuak honako hauek dira: Papelera Taldea, Kubo auzoa, Zubiondo Taldea eta Pedro Muro auzoa. Era berean, Ollargango Herri berria eta Osasuna eta Higienea etxebizitza-taldea birgaitzerako lehentasunezko eremu gisa identifikatzen dira, birgaitze handiko premia duten auzo gisa.

Saltoki Handien Lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Arrigorriaga C kategoriaren barruan dago.

Jarduera Ekonomikoen eta Merkataritza-ekipamenduen Lurralde-plan Sektorialaren 19. artikuluan arabera, Arrigorriaga lehentasunezko kokapenerako lehentasunezko interesa duten udalerrien artean dago.

3.4.4. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako metropoli-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Urbiko eremutik (Basauri), sare nagusiaren garatzeke dauden zatien egikaritzapena Arrankudiaga-Zolloraino, Arrigorriagatik igarota.

- Lurralde-ereduaren iradokizuna:

- Arrigorriagako barne-sarearekiko konexioa Santo Kristoko Sare Arterialekiko.

Trenbide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Abiadura Handiko Sarea gauzatzea Bilboraino, gaur egun gauzatzen ari dena.

Bide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- BI-625. Bentakoerreka (Arrigorriaga) – Bakiola (Arrankudiaga) herriaren saihesbidea.
 - BI-20 Bilboko ekialdeko saihesbidea: Miraflores-Ibarsusi tartea.
 - AP-8. Metropoliaren hegoaldeko saihesbidea A-8arekin lotzea (Malmasingo tunelaren by-passa).
- Lurralde-ereduaren iradokizuna:

Bentakoerreka (Arrigorriaga) -Bakiola (Arrankudiaga) herriguneko saihesbidea egin ondoren zirkulaziotik libre geratu den BI-625 errepidearen zatia tokiko bide bihurtzea

3.4.5. Baliabideen kudeaketa iraunkorra

Lurralde-plan Partzialak jarduketa hau aurreikusten du:

Salmenta Altuko EUTEaren berritzeak: epigrafe honen barruan sartzen dira Salmenta Altuko EUTEaren instalazioetan ia etengabe egiten diren hobekuntza-jarduketa guztiak: EUTEaren 2. fasea berritzea, ikatz aktiboko instalazioak birmoldatzea, ozonizazio-instalazioa eta eskuinaldeko hodia ebakitzeko balbula berria ezartzea.

3.4.6. Udalaz gaindiko eremu estrategikoak

Udalerria "Etxebarri-Basauri-Galdakao korridorea" udalaz gaindiko eremu estrategikoaren barruan dago, Basauri, Bilbo, Etxebarri eta Galdakao eta Zaratamo udalerrien ondoan.

Antolamendu-arauetan eremu horretarako definitutako espazio-, azpiegitura- eta hirigintza-antolamendurako jarraibide eta irizpide orokorrak hartuko dira kontuan, baita IX. eranskinean jasotako ekintza espezifikoak ere.

3.4.7. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Renfe (zabalera konbentzionala), Euskotren
- BIDEAK: A-8, AP-68, BI-3723, BI-4521, BI-625, BI-712

- „Trenbidearen eragin-eremuaren“ barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3.4.8. Plangintzak bateragarri egitea

- Pagasarriko metropoli-parkean Bilbo, Alonsotegi, Ugao-Miraballes eta Arrankudiag-Zolloarekin bateragarri egitea.
- Basauri eta Etxebarriekin bateragarri egitea Montefuerte metropoli-parkean.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- Ugao-Miraballes, Arrankudiaga-Zollo, Zaratamo eta Basaurirekin bateragarri egitea Nerbioi Behereko ibai-parkean.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.5.BARAKALDOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.5.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategorien ondoriozko eraginak

- Ingurumen-hobekuntza

Ekosistemak hobetzearekin eta ibaiertzak leheneratzearekin lotutako ingurumen-hobekuntzako eremuak daude udalerrian.

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten guneak
- Akuiferoen kalteberatasuna
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak

Galindoko ibai-parkea, izen bereko ibaiaren ibilguaren inguruan, Eremu Funtzionalaren hegoaldearen eta hiri-hazkundearen perimetroaren mugaren artean.

- Aisialdirako guneak

Argalario.

- Korridore ekologikoak eta lotura-korridoreak

C.E.06 Ganekogorta – Meaztegi – Barbadun. Ganekogorta – Gorbeia – Aiara (C.E.05) korridore ekologikoa Las Tobas-Akirtza ibai nagusiaren interes naturaleko eremuaren ingurunearekin lotzen du, eta Meatzaldeko Biotopoa Armañongo Parke Naturalarekin lotzen duen korridorearekin ere lotzen du.

C.U.S. Bilboko itsasadarreko udalaz gairako hiri-korridorea. Bilboko itsasadarraren ingurutik igarotzen da, Bilboko Salboko zubiaren eta Abrako Bilboko itsasadarraren bokalearen artean. Proposatutako helburua Bilboko itsasadarraren bi ertzetako konektibitate ekologikoa hobetzea da.

3.5.2. Hiri-habitata

Gehieneko bizitegi-dukiera. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorriz, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = 0 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza lortzen du (BH gehienez = 4.605 etxebizitza).

Memoriaren 5. kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluaren, honako irizpide hauek garatzen dira: kokaguneen ereduak; udalerrien gehieneko bizitegi-erakundearen kalkulua eta jardueraren ekonomikoaren kuantifikazio orokorraren gidalerria betetzen denaren egiaztatzea.

Udal hirigintza-plangintzak babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatutako lursailen erreserba zehaztuko du. Erreserba horrek, gutxienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. eta 82. artikuluetan deskribatutako estandarrak eta zenbatekoak hartuko ditu kontuan.

Barakaldoren kasuan, udal-plangintzak zuzkidura-bizitokietarako lurzoru-azalera bat kalifikatu beharko du nagusiki bizitegi-erakundearen eremuetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 81. artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera.

LPPk birgaitzeko lehentasunezko eremuetatik hartzen ditu Eremu Degradatu izendapena duten auzoak, San Luis auzoaren kasuan bezala, *hiri-habitataren antolamendu orokorreko* 10. planoan AD6 gisa identifikatutakoa..

LPPk Barakaldoko 9 auzo ezartzen ditu birgaitzeko lehentasunezko eremu gisa, birgaitze oso altuko (8) eta birgaitze altuko (1) premia duten auzo gisa diagnostikatuta daudelako. Auzo horien identifikazioa Antolamendu-arauen IV. eranskinean dago jasota.

Saltoki Handien Lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Barakaldo zentraltasun handieneko udalerriek dagokien A kategoriaren barruan dago.

Jardueraren Ekonomikoetarako eta Merkataritza-ekipamenduetarako Lurzorua Publikoki Sortzeko Lurralde-plan Sektorialaren 19. artikuluan arabera, Barakaldo lehentasunezko kokapenerako lehentasunezko interesa duten udalerrien artean dago, eta ezkerrean industria-birmoldaketako guneen susperraldi ekonomikoa eta hirigintza-berroneratzea sustatzeko eremua da.

Berronertzeko beharra duten eremuak honako hauek dira: Lutxana-Burtzeña Eremuko espazio nabarmena eta Alday UE-14. Espazio Nabarmenentarako zehaztapenak LPP honetako Antolamendu-arauen V. eranskinean ezartzen dira.

3.5.3. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

Bidaiarien mugikortasunarekin lotutako ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Garraio kolektiboaren bidezko mugikortasun-azterlanak Barakaldoko ingurunean.

Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako metropoli-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

-Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Zorrotzatik (Bilbo) Urbaneraino (Barakaldo), sare nagusiaren garatzeke dauden zatien egikaritzapena, Galindotik (Sestao), Gallartatik eta Arena hondartzatik jarraituz Muskizera heldu arte.
- Retuertotik (Barakaldo), Meaztegiko Metropoli-parkera sartzeko Causoko (Trapaga) zatiarekiko konexioa.
- Urban (Barakaldo) eta Benedikta (Sestao), sare nagusiaren zatien arteko konexioa, trenbide-trazadurarekiko paraleloan.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- Itsasadarraren ertzen arteko lotura: Urban (Barakaldo) -Altzaga (Erandio)

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Arteria Sarea osatzea, Zorrotzatik (Bilbo) Kadaguako eta Itsasadarreko ezkerretik itsasadarraren bokaleraino tarte alternatiboak edo osagarriak ezarriz.

Trenbide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Bilboko hegoaldeko saihebidia (lehen fasea), Serantes mendiko tuneletik Olabeagara

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Desertu eta Lutxana inguruan trenbide-zabaltzek eragindako azalera minimizatzea.
- Sestaoko lurzoru industrialetarako sarbidea zabalera metrikoan, Irauregiko adarraren luzapenean.
- Bilbo-Muskiz arteko Renferen C-2 linearen aldiriko zerbitzuen maiztasuna areagotzera bideratutako azpiegituretan jarduketak gauzatzea.
- Bilbo-Santurtzi eta Bilbo-Muskiz zabalera konbentzionaleko trazadurak EAera transferitzen badira, garraio publikoaren erabilerari eustea eta tranbia bihurtzearen aukera aztertzea.

Bide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- BI-30 Ahalmen Handiko Sarearen edukiera areagotzea eta botila-lepoak kentzea Barakaldoko lotunea-Kukularra (Errontegi zubia, bi norantzbidea).

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Bide-sarean TCPErako erreia txertatzea Zorrotzaurretik, Zorrotza, Lutxana-Burtzeña eta Deserturen (Barakaldo) bidez.
- Barakaldoko ingurabideko TCPE, metroarekin konektatuz Urbinagan, konexio-elementu gisa, batetik, Meatzaldearekin eta, bestetik, bide konbentzionaletatik, itsasadarraren erriberako nukleoekin.
- TCPE Ibarzaharra-Trapaga ardatzean, Barakaldoko Ingurabidearekin lotura duena.

Portuen arloko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Bilboko Portuari lotutako azalaren desafekzio-prozesuaren jarraipena.

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Itsasadarrean dauden transbordadore-txalupen zerbitzuak bultzatzea.
- Bidaiarien garraioa ezartzea itsasadarrean zehar itsasontzien zerbitzuen bidez.

3.5.4. Baliabideen kudeaketa

Lurralde-plan Partzialak jarduketa hau aurreikusten du:

- Galindoko ekaitz-tanga: Epigrafe honen barruan sartzen dira 90.000 m³ inguruko ekaitz-tanga bat garatuko duten jarduketak, Zuazoren eta Galindoko hondakin-uren araztegiaren arteko tunelean egina. Tanke honen helburua da HUAk jasotzen dituen emarien kudeaketa optimizatzea, bai euri-denborako gainezkatzeko-kopurua bai guztizko bolumen arindua murriztuz, HUAk arazten den ur-bolumena handituz eta Nerbioi itsasadarreko uraren kalitateari dagokionez positiboa izanez.

3.5.5. Udalaz gaindiko eremu estrategikoak

Udalerria "Meatzaldea" udalaz gaindiko eremu estrategikoaren barruan dago, Abanto-Zierbena, Muskiz, Ortuella, , Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Trapagararekin batera.

Udalerria "Bilboko itsasadarra" udalaz gaindiko eremu estrategikoaren barruan dago, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaorekin batera.

Antolamendu-arauetan eremu horretarako zehaztutako espazio-, azpiegitura- eta hirigintza-antolamendurako jarraibide eta irizpide orokorrak hartuko dira kontuan, baita IX. eranskinean jasotako ekintza espezifikoak ere.

3.5.6. Klima-aldaketa

Udalerria kaltebera da lehentasunezko zatik jo diren eragin hauekiko:

- Giza osasunerako bero-boladak.
- Itsas-mailaren igoera hiri-ingurunearen eta itsasertzaren gainean, "Bilboko itsasadarraren" udalaz gaindiko eremu estrategikoaren parte gisa.

3.5.7. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Renfe (zabalera konbentzionala), Renfe (zabalera metrikoa), Metro Bilbao (lurpeko zatia)
- BIDEAK: A-8, AP-8, BI-628, BI-644, N-637, BI-745

- „Trenbidearen eragin-eremuaren“ barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.5.8. Plangintzak bateragarri egitea

- Barakaldo eta Bilbo arteko plangintza mugakideak bateragarri egiteko eremua (Kadaguako eremua)

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.6.BARRIKAKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.6.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategorien ondoriozko eraginak

- Ingurumen-hobekuntza

Ekosistemak hobetzearekin lotutako ingurumen-hobekuntzako eremuak daude udalerrian.

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten guneak
- Akuiferoen kalteberatasuna
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak

Uribe Kostako kostaldeko metropoli-parke lineala. Getxoko Aixerrota eremuaren eta Plentziako itsasadarren bokalearen ezkeraldeko ertzaren arteko kostaldeko zerranda osatzen du, kostaldeko lerrotik hiri-hazkundeko perimetraraino. Punta Galea – Barrikako intereseko natura-gunea hartzen du.

- Aisialdirako eremuak

Barrika

- Babestutako espazio naturalak, Natura 2000 Sarea eta biotopoak

Mundakako itsasadarreko-Ogoño Lurmuturreko itsas-espazioa. HBBE (ES0000490). Espazioa Espainiako itsas-uretan Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) deklaratu dituen uztailaren 9ko AAA/1260/2014 Aginduaren bidez izendatu da. Itsasertzeko 30 km-tan zehar hedatzen da.

Uribe Kostako biotopoa. Lurralde-plan partzialaren eremuaren barruan dago Uribe Kosta – Butroeko biotopoa eta honakoaren proposamena du: "Uribe Kosta-Butroeko ingurumen-balioak eta ondare naturala babesteko eta kontserbatzeko baliabide naturalak antolatzeko plana". Espazio hori babestutako biotopo izendatzeko prozesuan dago; aldi berean, prozedura abiarazten da Europako Natura 2000 Sarean sartzeko, Estatuko Administrazioak sustatutako Itsas-sarearen proposamenarekin koordinatuta.

- Korridore ekologikoak

C.E.08 Butroe. Uribe Kostako Metropoli-parkearen ingurunea lotzendu, Uribe Kostako Biotopoa barne hartuz. Halaber, biotopoa hedatzen du Mungialdeko Eremu Funtzionalan.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.6.2. Landa-habitata

Barrika LPPk proposatutako nekazaritza eta abeltzaintzako korridore ekologikoen sarearen parte da, Metropoliaren Intereseko Nekazaritza eta Abeltzaintza Guneekin eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako konektoreekin.

3.6.3. Hiri-habitata

Gehieneko bizitegi-educiera. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorriz, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = -85 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza lortzen du (BH gehienez = 248 etxebizitza).

Memoriaren 6. kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluan, honako irizpideak garatzen dira: kokaguneen eredua; udalerrien gehieneko bizitegi-educieraren kalkulua eta jarduera ekonomikoen kuantifikazio globalaren gidalerroa betetzen denaren egiaztapena.

Barrikaren kasuan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ez du behartzen etxebizitza babesturako lurzorua gordetzera (81. eta 82. artikulua),

Saltoki Handien Lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Barrika C kategoriaren barruan dago.

3.6.4. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako metropoli-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Sare nagusiaren garatzeke dauden zatien egikaritzapena, Sopelatik, Barrikatik eta Plentziatik igarota Gorkizeraino.

Bide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- BI-2704 Trazadura zuzentzea: Urduliz-Plentzia

3.6.5. Klima-aldaketa

Udalerrria kaltebera da lehentasunezko zatia jo diren eragin hauekiko:

- Giza osasunerako bero-boladak.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- Itsas-mailaren igoera hiri-ingurunearen eta itsasertzaren gainean.

3.6.6. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Metro Bilbao
- BIDEAK: BI-2122, BI-2704

- „Trenbidearen eragin-eremuaren“ barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3.6.7. Plangintzak bateragarri egitea

- Getxorekin eta Sopelarekin bateragarri egitea Uribe Kostako itsasertzeko metropoli-parkean.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.7.BASAURIKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.7.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategorien ondoriozko eraginak

- Ingurumen-hobekuntza

Ekosistemak hobetzearekin eta ibaiertzak leheneratzearekin lotutako ingurumen-hobekuntzako eremuak daude udalerrian.

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten guneak
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak

Montefuerteko metropoli-parkea, Malmasin inguruan.

Nerbioi Behereko ibai-parkea, izen bereko ibaiaren ibilguaren inguruan, Eremu Funtzionalaren hegoaldearen eta Basauriko hirigunearen artean.

- Gatazka-arloak

A.C. AHT Korridorea

A.C.20 Ollargan- Zubialdea

3.7.2. Landa-habitata

Finagako kokalekua landa-gunetzat hartzen da.

3.7.3. Hiri-habitata

Gehieneko bizitegi-dukiera. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorriz, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = 0 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza lortzen du (BH gehienez = 1.903 etxebizitza).

Memoriaren 5. kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluan, honako irizpide hauek garatzen dira:

kokaguneen eredu; udalerrien gehieneko bizitegi-edukieraren kalkulua eta jarduera ekonomikoen kuantifikazio orokorraren gidalerroa betetzen denaren egiaztatena.

Udal hirigintza-plangintzak babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatutako lursailen erreserba zehaztuko du. Erreserba horrek, gutxienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. eta 82. artikuluetan deskribatutako estandarrak eta zenbatekoak hartuko ditu kontuan.

Basauriren kasuan, udal-plangintzak zuzkidura-bizitokietarako lurzoru-azalera bat kalifikatu beharko du nagusiki bizitegi-erabilerako eremuetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 81. artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera.

LPPk honako auzo hauek ezartzen ditu birgaitzeko lehentasunezko eremu gisa, birgaitze oso altuko (San Fausto), birgaitze altuko premia gisa (Kalero eta Basozelai) eta birgaitze ertain altuko premia gisa (Larrazabal) diagnostikatuta daudelako.

Saltoki Handien Lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Basauri zentraltasun handieneko udalerriei dagokien A kategoriaren barruan dago.

Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza-ekipamenduetarako Lurralde-plan Sektorialaren 19. artikuluan arabera, Basauri lehentasunezko kokapenerako lehentasunezko interesa duten udalerrien artean dago.

Hiri-berrikuntzako eremu bat ezartzen da: "La Basconia-Laminados Velasco" espazio nabarmena (PERI AH-1 Laminados Velasco). Espazio nabarmen hauetarako zehaztapenak LPP honen Antolamenduarauen V. eranskinean ezartzen dira.

3.7.4. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

Bidaiarien mugikortasunarekin lotutako ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Sarratuko intermodalitatea hobetzea, bidaiarien metropoliko tren-zerbitzua (L1, L2, L3 L5) eta ETSko aldiriak (E1, E3, E4) lotzen dituen geltoki intermodal berri batekin.

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Trenbide-geltokiarekin lotutako disuasioko aparkalekuak hobetzeko ea tarifa Sarratuko etorkizuneko geltokiko garraio kolektiborako zerbitzuan integratzeko azterlanak.

Salgaien mugikortasunarekin lotutako ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Ariz-Basauri zamalanetarako terminala plataforma intermodal bihurtzeari buruzko azterlana, trenbide eta errepide bidezko garraioetarako.

Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako metropoli-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- Sare nagusiak Basauritik igarotzean garatzeke dituen zatien egikaritzapena.
- Urbi ingurutik (Basauri), sare nagusiarekiko konexioa Arkotxarekin (Zaratamo).

Trenbide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Abiadura Handiko Sarea egikaritzea Bilboraino, gaur egun gauzatzen ari dena.
- Metroaren L3 linea hedatzea Sarratutik, Aperribaitik, Bengoetxe eta Galdakaoko erdigunetik igarota Usansoloko Ospitaleraino (L5 berria, aztertzen).

- Lurralde-ereduaren iradokizuna:

- Arizko salgaien tren-terminala birmoldatzea, dagoen hirigintza-oztopoa minimizatuta

Bide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak :

- Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea-A8 konexioa Basaurin (Malmasingo tuneleko by pass-a)

3.7.5. Udalaz gaindiko eremu estrategikoak

Udalerria "Etxebarri-Basauri-Galdakaoko Eraldaketa-ardatzeko" udalaz gaindiko eremu estrategikoaren barruan dago, Arrigorriaga, Bilbo, Etxebarri, Galdakao eta Zaratamo udalerriekin batera.

Antolamendu-arauetan eremu horretarako definitutako espazio-, azpiegitura- eta hirigintza-antolamendurako jarraibide eta irizpide orokorrak hartuko dira kontuan, baita IX. eranskinean jasotako ekintza espezifikoak ere.

3.7.6. Klima-aldaketa

Udalerria kaltebera da giza osasunerako lehentasunezko zatitako bero-boladen arriskuarekiko.

3.7.7. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Renfe (zabalera konbentzionala), Renfe (zabalera metrikoa), Metro Bilbao (lurpeko tartea), Euskotren.
- BIDEAK: A-8, BI-3720, BI-625, BI-712

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- “Trenbidearen eragin-eremuaren” barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3.7.8. Plangintzak bateragarri egitea

- Arrigorriaga eta Etxebarriekin bateragarri egitea Montefuerteko metropoli-parkean.
- Ugao-Miraballes, Arrigorriaga, Zaratamo eta Arrankudiaga-Zollorekin bateragarri egitea Nerbioi Behereko ibai-parkean.

3.8. BERANGOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.8.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategorien ondoriozko eraginak

- Ingurumen-hobekuntza

Udalerrian ekosistemak hobetzearekin lotutako ingurumen-hobekuntzako eremuak daude.

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten gunek
- Akuiferoen kalteberatasuna
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Korridore ekologikoak

C.E.02 Bolue – Unbe. Unbe Gaztelumendi gailur-lerroko korridore ekologikoa, Larrainazubi ibaiaren inguruan, Akarlandako Metropoli-Parkearekin eta Bolueko haraneko putzutzearekin lotzen du.

3.8.2. Landa-habitata

Berango LPPk proposatutako nekazaritza eta abeltzaintzako korridore ekologikoen sarearen parte da, Metropoliko Intereseko Nekazaritza eta Abeltzaintza Guneekin eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako konektoreekin.

3.8.3. Hiri-habitata

Gehieneko bizitegi-dukiera. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorriz, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = 0 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza lortzen du (BH gehienez = 1.388 etxebizitza).

Memoriaren 6. kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluan, honako irizpideak garatzen dira: kokaguneen eredia; udalerrien gehieneko bizitegi-dukieraren kalkulua eta jarduera ekonomikoen kuantifikazio globalaren gidaleroa betetzen denaren egiaztapena.

Udal hirigintza-plangintzak babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatutako lursailen erreserba zehaztuko du. Erreserba horrek, gutxienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. eta 82. artikuluetan deskribatutako estandarrak eta zenbatekoak hartuko ditu kontuan.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

Saltoki Handien Lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Berango C kategoriaren barruan dago.

Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza-ekipamenduetarako Lurralde-plan Sektorialaren 19. artikulua arabera, Berango hazkunde ertaineko udalerrien artean dago lehentasunezko kokapenerako.

3.8.4. Klima-aldaketa

Udalerria kaltebera da giza osasunerako lehentasunezko zat jotako bero-boladen arriskuarekiko.

3.8.5. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Metro Bilbao
- BIDEAK: BI-637, BI-3733, BI-3737

- "Trenbidearen eragin-eremuaren" barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3.8.6. Plangintzak bateragarri egitea

- Berango eta Getxo arteko mugakide diren plangintzak bateragarri egiteko eremua (Mimenaga)

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

3.9. BILBOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.9.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategorien ondoriozko eraginak

- Ingurumen-hobekuntza

Ekosistemak hobetzearekin, ibaiertzak leheneratzearekin eta eremu degradatuak (harrobia) berreskuratzearekin lotutako ingurumen-hobekuntzako eremuak daude udalerrian.

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten guneak
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Metropoli-parkeak eta ibai-parkeak

Artxandako metropoli-parkea, Cabras menditik eta Banderas menditik Santo Domingo gainera doan katearen tontorrean. Hiri-hazkundearen perimetroaren mugaraino hedatzen da.

Pagasarriko metropoli-parkea, izen bereko mendiaren inguruan.

- Korridore ekologikoak eta lotura-korridoreak

C.E.04 Artxanda – Ganguren gailur-lerroa. Konektatzen du C.E. 03 Urdaibai – Ganekogorta korridorea Artxandako Metropoli-parkearekin.

C.E.06 Ganekogorta – Meaztegi – Barbadun. C.E.05 Ganekogorta – Gorbeia – Aiara korridore ekologikoa Las Tobas-Akirtza ibai nagusiaren interes naturaleko eremuarekin eta Meatzaldeko Biotopoa eta Armañongo Parke Naturala lotzen dituen korridorearekin lotzen du.

C.E.E.04.04 Artxanda – Bilboko itsasadarra lotura. Artxanda mendiaren hegoaldeko hegala inguruan igarotzen da. Proposatutako helburua Artxanda – Ganguren (C.E.04) gailur-lerroko korridore ekologikoaren eta Bilboko itsasadarraren arteko konektibitate ekologikoa bermatzea da.

C.U.S. Bilboko itsasadarreko udalaz gaindiko hiri-korridorea. Bilboko itsasadarrean zehar garatzen da, Bilboko Salbeto zubiaren eta Abrako Bilboko itsasadarraren bokalearen artean. Proposatutako helburua Bilboko itsasadarraren bi ertzetako konektibitate ekologikoa hobetzea da.

Azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisaren baldintzatzaile gainjarrien interakzioaren ondoriozko eraginak

- Gatazka-arloak

A.C.14 Santo Domingo gaina.

A.C.15 Ibaizabal.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

A.C.23 Buia.

3.9.2. Landa-habitata

Landa-gunetzat hartzen dira Azkarai, Buia, San Justo eta Seberetxe kokalekuak.

3.9.3. Hiri-habitata

Gehieneko bizitegi-educiera. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorriz, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = 0 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza lortzen du (BH gehienez = 16.264 etxebizitza).

Memoriaren 6. kapituluaren eta Antolamendu-arauen 5. tituluan, honako irizpideak garatzen dira: kokaguneen eredia; udalerrien gehieneko bizitegi-educieraren kalkulua eta jarduera ekonomikoen kuantifikazio globalaren gidaleroa betetzen denaren egiaztapena.

Udal hirigintza-plangintzak babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzetarako kalifikatutako lursailen erreserba zehaztuko du. Erreserba horrek, gutxienez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 80. eta 82. artikuluetan deskribatutako estandarrak eta zenbatekoak hartuko ditu kontuan.

Bilboren kasuan, udal-plangintzak zuzkidura-bizitokietarako lurzoru-azalera bat kalifikatu beharko du nagusiki bizitegi-erabilerako eremuetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 81. artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera.

LPPk birgaitzeko lehentasunezko eremutzat hartzen ditu ARI izendapena duten auzoak. Kasu honetan, Bilboko Hirigune Historikoa eta Bilbo-Zaharra sartzeko dira, hiri-habitataren antolamendu orokorreko 10. planoan ARI 6 eta ARI 7 gisa identifikatutakoak. Eremu degradatu izendapena duten auzoak ere sartzeko dira, hala nola Cruz-Gurutze auzoa, Artatzu-Bekoa auzoa, Irala auzoa eta Irala Historikoaren handitzea, Trenbide-langileen Etxeak/Zabala, Zorrotza-Zazpilanda eta Olabeaga, hiri-habitataren antolamendu orokorreko 10. planoan AD1, AD2, AD3, AD4, AD5 eta AD8 gisa identifikatutakoak.

LPPk Bilboko 18 gune ezartzen ditu birgaitzeko lehentasunezko eremu gisa, birgaitze oso altuko (4) eta birgaitze altuko (9) eta birgaitze ertain-altuko (5) premia duten auzo gisa diagnostikatuta daudelako. Auzo horien identifikazioa Antolamendu-arauen IV. eranskinean dago jasota.

Saltoki Handien Lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legearen arabera, Bilbo zentraltasun handieneko udalerriei dagokien A kategoriaren barruan dago.

Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza-ekipamenduetarako Lurralde-plan Sektorialaren 19. artikulua arabera, Bilbo lehentasunezko kokapenerako lehentasunezko interesa duten udalerrien artean dago eta industria-birmoldaketarako eremuen susperraldi ekonomikorako eta hirigintza-berroneratzerako sustapen-eremua da.

Hiri-berrikuntzako hiru eremu ezarri dira: "Zorrotzaurre", "Punta Zorrotza" eta "Zorrozgoiti" espazio nabarmenak. Gainera, LPPk udalerririk honetan lurralde-eredua garatzeko beste espazio nabarmen batzuk identifikatzen ditu, *hiri-habitataren antolamendu orokorreko* 10. planoan honela identifikatutakoak: E.R-15 Olabeaga eta E.R-17 Abandoko geltokia eta Plaza Biribila. Espazio nabarmenen antolamendurako definizioa, helburuak, irizpideak eta zehaztapenak Antolamendu-arauen V. Eranskinean daude.

Berroneratzeko premia duten eremu hauek identifikatzen dira: UE 845.01, UE 845.02.

3.9.4. Mugikortasuna eta garraio-azpiegiturak

Bidaiarien mugikortasunarekin lotutako ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Garraibide kolektiboaren bidezko mugikortasun-azterlanak Bilboko erdigunean.
- Ibai-nabigazioko zerbitzuak ezartzeko azterlanak.
- Basurtuko eta Zorrotza-Zorrozgoitiko geltokien intermodalitatea hobetzea, ETSren L4 lineako geltokiak aldiriko tren-zerbitzuan (Renferen C4f) sartuz.

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Zorrotza, Santa Ageda eta Kastrexanako geltokietan intermodalitatea hobetzea, ETSren L4 lineako geralekuak aldiriko tren-zerbitzuan (Renferen C4f) sartuz.

Oinezkoen eta bizikleten irisgarritasunerako metropoli-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Sare nagusiak Bilbotik igarotzean garatzeke dituen zatien egikaritzapena.
- Larrondo (Loiu) eta Artxandako Metropoli-parkearen arteko lotura Bilbon, Lezamako Bide Zaharraren ibilbidearen gainean.
- Itsasadarraren ertzeen arteko konexioa Punta Zorrotza-Zorrotzaurre-San Ignacion.

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Sare nagusia osatzea ordezko tarte edo tarte osagarri hauek ezarriz:
 - Punta Zorrotzatik (Bilbo), itsasadarraren ezkerretik Kadaguako bokaleko bidegurutzatuz Lutxanaraino.
 - Euskalduna zubitik (Bilbo) Elorrietaraino, itsasadarraren eskuinaldeko ertzetik.
 - Boquetetik (Etxebarri) Areatzako zubiraino (Bilbo), itsasadarraren ezkerretik.
 - Abusu (Bilbo) eta Venta Altan (Arrigorriaga) dagoen sarearen arteko zatia. Buian Pagasarriko Parke Metropolitarrera sarbidea du.

Trenbide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Bilboko hegoaldeko saihezbidea (lehen fasea), Serantes mendiko tuneletik Olabeagara.
- Abiadura Handiko Sarea gauzatzen ari da Bilboraino eta Bilbo-Abando geltokira iristen da. Abandoko geltokia birmoldatzeari lotuta dago ADIF garajeen kokapen berria.

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- Euskotrenek erabiltzen duen metroaren L3 linearen luzapena, Matiko eta Moyua artean.
- Metroaren L-3 linea Bilboko Aireporturaino luzatzea.
- ADIFen Zorrozgoiti azpiko zabalera metrikoko linea tunelean igarotzea, geltoki berriarekin Elejabarrin, eta egungo trazadura eta geltokia kentzea Zorrotzan.
- Metroaren L4 linea berria, lurpean dauden ADIFen trazadurak aprobetxatuz, Abando Zorrotzarekin lotuz, zati berriekin, Errekalde eta Irala auzoei zerbitzua emateko.
- Bilboko tranbia zabaltzea (tarteak: Jesusen Bihotza-Olabeaga-Zorrotzaurre eta Autonomia-Abando).
- Bilboko tranbia zabaltzea, zaharkitutako trenbide-lineen gainean: Bolueta – Kukullaga tarteak.

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Bilbo hegoaldeko saihezbidea (bigarren fasea)
- Bilbo eta Muskiz artean Renferen C-2 linearen aldiriko zerbitzuen maiztasuna areagotzera bideratutako azpiegituretan jarduketak gauzatzea.
- Bilbo-Santurtzi eta Bilbo-Muskiz zabalera konbentzionaleko trazadurak EAera transferitzen badira, garraio publikoaren erabilerari eustea eta tranbia bihurtzearen aukera aztertzea.

Metroaren L4 linea Zorrotzatik Irauregiraino luzatzea, lehendik dauden Adifeko trazaduren gainean.

Bide-sareko ekintzen ondoriozko eraginak

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Metropoliaren hegoaldeko saihezbidearen 1b fasea egitea (Peñascal-Venta Alta zati berria).
- BI-20 Galtzada bikoiztea: Bilbo ekialdeko saihezbidea, Miraflores-Ibarsusi. BI-20 Galtzada bikoiztea: Santo Domingo tunela
- BI-20 Derioko norabideko auto-pilaketa murrizteko egokitzapena
- BI-10 Errekaldeko saihezbidea eta Errekalde auzoaren gainean dagoen A8ko biaduktua eraispena.

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Bolueta aldean, BI-634 eta BI-20 errepideetako hiri-zatiak tokiko bide bihurtzea, Bilboko ekialdeko saihezbideko Miraflores-Ibarsusi tarteak egiteko baldintzapean.
- Bide-sarean TCPErako erreia txertatzea Zorrotzaurretik, Zorrotza, Lutxana-Burtzeña eta Deserturen (Barakaldo) bidez.

Portuen arloko ekintzen ondoriozko eraginak

25 ABR 2023

BEHIN-BEHINEKO ONESPENA
APROBACIÓN PROVISIONAL

- Administrazio eskudunen aurreikuspenak:

- Bilboko Portuari lotutako azaleren desafekzio-prozesuaren jarraipena.

- Lurralde-ereduaren iradokizunak:

- Itsasadarrean dauden transbordadore-txalupen zerbitzuak bultzatzea.
- Bidaiarien garraioa ezartzea itsasadarrean zehar itsasontzien zerbitzuen bidez.

3.9.5. Baliabideen kudeaketa

Lurralde-plan Partzialak jarduketa hauek aurreikusten ditu:

- Ordunte sistema berritzea. Epigrafe honetan sartzen dira etorkizunean Ordunteko kanalean egingo diren hobekuntza-jarduerak. Kanal hori Ordunteko presa Burgosko probintziarekin lotzen du Bilbok. Zenbait sifoi birmoldatzea eta Sollanoko EUAn etorkizuneko jarduketak egitea aurreikusten da.
- Bilboko ertzen arteko sare primarioa: Bilboko sare primarioaren etorkizuneko konexioa da, Elejabarri biltegiaren (itsasadarraren ezker aldean) eta Ciudad Jardín balbula aretoaren (eskuinaldean) artekoa. Jarduketaren konplexutasuna dela eta (hiri-bilbe bakoitzeko 4 km baino gehiago), zatika egitea aurreikusten da, batzuk dagoeneko gauzaturik, eta beste batzuk pixkanaka egingo dira.
- Pz-100 eta Pz-200 putzuen hobekuntza hidraulikoa: Jarduketa bi izango dira: adierazitako putzuak eraberritzea, saneamenduko kolektore nagusiak bideratzen dituen emarien kudeaketa- eta kontrol-ahalmena hobetzeko, euri-aldietan kolektoreko lineako biltegitratzea hobetzeko eta putzu horien bidez sortzen diren gainezkatzeak murrizteko.

3.9.6. Udalaz gaindiko eremu estrategikoak

Udalerria "Bilboko itsasadarra" udalaz gaindiko eremu estrategikoaren barruan dago, Barakaldo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaorekin batera.

Udalerraren ekialdea "Etxebarri-Basauri-Galdakaoko Eraldaketa-ardatzeko" udalaz gaindiko eremu estrategikoaren barruan dago, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao eta Zaratamorenkin batera.

Antolamendu-arauetan eremu horretarako zehaztutako espazio-, azpiegitura- eta hirigintza-antolamendurako jarraibide eta irizpide orokorrak hartuko dira kontuan, baita IX. eranskinean jasotako ekintza espezifikoak ere.

3.9.7. Klima-aldaketa

Udalerria kaltebera da lehentasunezko zatik jo diren eragin hauekiko:

- Giza osasunerako bero-boladak.
- Itsas-mailaren igoera hiri-ingurunearen eta itsasertzaren gainean, "Bilboko itsasadarraren" udalaz gaindiko eremu estrategikoaren parte gisa.

3.9.8. Osasuna

Akustikaren arloan, plangintzan txertatu beharreko baldintza hauek bete beharko dira:

- Zortasun akustikoko guneak eta bibrazioen eragina, 213/2012 Dekretuaren arabera, zehazki, azpiegitura hauei dagokienez:

- TRENBIDEA: Renfe (zabalera konbentzionala), Renfe (zabalera metrikoa), Metro Bilbao (lurpeko tartea), Euskotren.
- BIDEAK: A-8, AP-8, AP-68, BI-3651, BI-3723, BI-3732, BI-3736, BI-3741, BI-3742, BI-3750, BI-3752, BI-4735, BI-604, BI-631, BI-636, N-634.

- "Trenbidearen eragin-eremuaren" barruan (zortasun- edo afekzio-eremua) egiten diren eraikinetan, LPPren antolamendu-arauen 113.2.E.g. artikuluan adierazitakoa hartuko da kontuan.

3.9.9. Plangintzak bateragarri egitea

- Barakaldo eta Bilbo arteko (Kadagua aldea) plangintza mugakideak bateragarri egiteko eremua.
- Sondika eta Bilbo arteko (Artxanda) plangintza mugakideak bateragarri egiteko eremua.
- Alonsotegi, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga eta Ugao-Miraballesekin bateragarri egitea Pagasarriko metropoli-parkean.

3.10. DERIOKO UDAL-PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINAK

3.10.1. Ingurune fisikoaren antolamendua eta azpiegitura berdea

Arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Uholde-arriskua duten guneak
- Eremu higagarriak edo higadura-arriskua dutenak

Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarrien ondoriozko eraginak

- Korridore ekologikoak eta lotura-korridoreak

C. E.01 Unbe – Gaztelumendi gailur-lerroa. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek proposatutako korridore ekologikoa lotzen du, Busturialdea – Artibai Eremu Funtzionalako Urdaibairen eta Aiarako Eremu Funtzionalaren artean, Larrainazubi ibaiaren ingurunearekin.

C.E.04 Cordal Artxanda – Ganguren. C.E.03 Urdaibai – Ganekogorta korridorea Artxandako Parke Metropolitarrarekin lotzen du.

C.E.E.01.01 Parke Teknologikoa – Zamudio. Danoz ibaiaren ibilgua jarraituz garatzen da. Helburua da Unbe – Gaztelumendi Kordaleko korridore ekologikoaren (C.E.01) eta Zamudioko herrigunearen arteko lotura ekologikoa finkatzea.

C.E.E.04.02 Asua ibaia - Sondika (La Ola). Asua ibaiaren ibilbideari jarraituz garatzen da, Sondikako La Ola auzoaren eta Ugaldeguren industrialdearen artean, konektibitate ekologikoa bermatuz, Teknologia Parkea – Zamudio lotura-korridorearekin lotu arte. Helburua da konektibitate ekologikoa bermatzea Asua ibaian zehar, Sondikaren eta Zamudioko hirigunearen artean.

Azpiegitura berdearen eta azpiegitura grisaren baldintzatzaile gainjarrien interakzioaren ondoriozko eraginak

- Gatazka-arloak

A.C.01 Mantuliz-Artebakarra.

A.C.02 Artebakarra gaina. Sare egituratzailearen BI-631 bidea. Sartzeko eta irteteko bideak hartzen ditu barne.

3.10.2.Landa-habitata

Lurralde-plan Partzialak proposatutako nekazaritza eta abeltzaintzako korridore ekologikoen sarearen parte da Derio, Metropoliaren Intereseko Nekazaritza eta Abeltzaintza Guneekin eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako konektoreekin.

3.10.3.Hiri-habitata

Gehieneko bizitegi-educiera. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 13. artikuluko bizitegi-kuantifikaziorako irizpideekin eta haren aplikazio-arauen IV. eranskinarekin bat etorriz, LPPak eremu funtzionaleko udalerrien 8 urterako bizitegi-kuantifikazioa garatzen du Memoriaren 6.4.2 atalean, eta Antolamendu Arauen III. eranskinean jasotzen da. Kasu honetan, LPPak LEZ = 0 lurralde-eredua zuzentzeko osagai bat ezartzen du (Memoriaren 6.4.2.5 atalean justifikatzen da) eta gehieneko bizitegi-ahalmenaren emaitza BH = 1.429 etxebizitza da.

